

## Adiskidetasun arriskutsuak

"... bakoitzak, bakoitzak bere jokoari egin diezaiola kasu"

**P**YRENAICAREN sendotasunetariko bat da oso gai ugariak ikutzen dituela. Dibertsoak eta tankera ezberdinez kontatuak. Protagonista beraiak idatziak. Jende sutsua. Egiten dutenaz sorginduak. Bakoitza bere nibelean, zailtasunezko, segurtasunezko eta arriskua asumitzeko estrabeak bakoitzak bere mailara jartzen du.

Eta hori ondo egon arren, arriskutsua izan daiteke ere. Beren aniztasunagatik, jendea erratu dadin eragin dezakete. Gerta daiteke egindako ekintzaren zailtasuna ez egokitzea ekintza azaltzeko erabiltzen den erara. Kutsaturiko entusiasmoak eta imitatze gogoak nahastera induzitu dezaketelaren arriskua dago.

Konektatu egin beharko litzateke sakonki idazlearen izaerarekin. Egoera animiko bat transmititu nahi zaigunean, arazo tekniko baten aurrean adierazi beharreko erantzunezko planteamendu bat, era ezberdinetan jasoa izan daiteke segun eta nolakoa den aldizkaria bilatzen edo aldizkariarekin topo egiten duen irakurlea.

Baina ez da hori soilik. Mendi-irteera bat errepikatzen denean, kanpoko kondizioak guztiz desberdinak gertatu daitezke artikularen autoreak ekintza hori bizi izan zueneko momentuan aurkitu zituenetatik, (horrexegatik saiatzeko gara beti

gertakariari ahalik eta gehien hurbiltzen, fitxa teknikoa eskainiz, zeinean nork, non, noiz, nola ... eta zergatik ere bezalako galderei buruzko datuak ematen bait dira).

Ba dago zer aukeratu Pyrenaicaren edozein aletan. Plan asko proposatzen da. Argibide ugariak ematen dira, mendian pasatzen den denbora bizipen pozgarriagoa eta seguruagoa ere izan dadin. Baina kontu izan! erreferentzia baino ez da eta berez ez du ordezkaten inongo ikasbide-prozesurik.

Alpinismoak beti du arrisku potentzialen bat, esplizituagoa ekintza batzutan beste batzutan baino. Irakurketa exhaustiboenak ere, ez du ordezkaten esperientzia, eta ez da gure gogoalderantzikoa defendatzea. Gauzak horrela, Pyrenaica ez da moralki gerta daitekeen edozein istripuren erantzule. Pyrenaicari bururapenen bat azaltzen diotenean beren kontura egiten dute oso osorik.

Entusiasmoak ez dezala oztopatu zentzu ona. Izan ezazu argi beti helburua zein den eta saiatu zaitzez zure mendi-trebetasunak etengabe garatzen, zure lagunenen beharra gero eta gutxiago izan dezazun. Zure gaitasuna handitu ahala, handitu egingo da zure konfidantza zure buruarekiko, eta bidebatez zure asetasuna mendian.

Hau danau esan ondoren ... gonbidatzen zaitugu aldizkariaren barruan sartzera eta bai zuri eta bai guri gustatzen zaigunaz gozatza.

## Las amistades peligrosas

"... cada cual, cada cual que atiende a su juego ..."

**U**NA de las fortalezas de Pyrenaica es que incluye artículos muy variados. De temas diversos y tratados con un estilo diferente. Escritos por los propios protagonistas. Gente entusiasta. Encantados con lo que hacen. Cada cual a su nivel, colocando los listones de dificultad, de seguridad y de ascensión del riesgo, cada uno a su altura.

Y eso mismo que está bien así, puede ser peligroso. Por su diversidad, puede equivocarse. Puede no corresponder la complicación de la actividad realizada con la forma de exponerlo. Existe el riesgo de que el entusiasmo contagiado y el espíritu de imitación induzcan a confusión.

Habría que conectar muy a fondo con la personalidad del autor. Cuando se nos intenta transmitir un estado de ánimo, un planteamiento de respuesta ante un problema técnico... puede ser recogido de forma muy diferente según el lector que busque o se encuentre con la revista.

Pero no es sólo eso. Cuando se está repitiendo una experiencia montañera, las condiciones externas pueden resultar absolutamente diferentes de las que se encontró el autor del artículo en el momento que la vivió (Por eso intentamos siempre acercarnos en

lo posible al evento, proporcionando una ficha técnica con los datos de quién, dónde, cuándo, cómo ... e incluso por qué).

Hay mucho para elegir en cualquier número de Pyrenaica. Se sugieren muchos planes. Se provee abundante información para hacer del tiempo en la montaña una vivencia más gratificante y también más segura. Pero ¡jojo! es sólo una referencia y no sustituye a ningún proceso de aprendizaje.

El alpinismo incluye siempre un peligro potencial, más explícito en unas actividades que en otras. Toda la lectura del mundo no sustituye a la experiencia y no es nuestra intención defender lo contrario. Así que Pyrenaica no se hace moralmente responsable de ningún accidente que se produzca. Las personas que realicen cualquier sugerencia de Pyrenaica, lo hacen a su entero riesgo.

Que el entusiasmo no obstaculice el buen juicio. Ten siempre presente el objetivo final y esfuérzate en desarrollar continuamente tus habilidades montañeras, para que cada vez dependas menos de las de tus compañeros. Según vaya aumentando tu capacidad aumentará tu nivel de confianza en ti mismo y con él tu nivel de satisfacción en la montaña.

Dichas estas palabras ... te invitamos a entrar en la revista y disfrutar de lo que te gusta a ti y nos gusta a nosotros.

**Txomin Uriarte**